

Nazareteko Jesusi buruz gogarteak

Nazareteko Jesusi buruz gogarteak

Fr. Luis Villasante

ELEA

Eskubide guztiak erreserbatuta daude.
Debekatuta dago, legearen arabera,
liburu honen kopia egitea,
osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere
(fotokopiak eta informatika barne)
Copyright-aren jabeen idatzizko baimenik gabe.
Baita publikoki aleen distribuzioa egitea ere.

Marrazkiak eta azala: Belén Lucas

Euskarazko Bildumen arduraduna:
Mari Eli Ituarte Zarragoikoetxea

Bildumaren diseinua: Alvaro Sánchez

© Fr. Luis Villasante Kortabitarte

© 1998 Gero/Mensajero. Sancho de Azpeitia 2, bajo -
48014 Bilbao

E-mail: mensajero@fedecali.es

Web: <http://www.mensajero.com>

ISBN: 84-271-2194-6

Lege gordailua: BI-2678-98

E.E.n inprimatua- Printed in E.C.

Inprimategia: Gestingraf, S.A.L. - Camino de Ibarsusi, 3 -
48004 Bilbao (Bizkaia)

AURKIBIDEA

"Ni nor naizela diozue?"	9
"Ama Birjinagandik jaioa" (Lc 2,7)	13
Jesus haurra Egiptoko desterruan	19
Jesus Nazareten bizi izandako aldia	23
Jesusen Bizitza Agerikoa (I)	29
Jesusen Bizitza Agerikoa (eta II)	33
Mendiko hitzaldia	37
Ereilearen parabola	43
Elbarriaren sendaketa	47
Lepradunaren sendaketa	51
Bi sendaketa: sinagoga-buruaren alabarena eta berau baino lehenago zenarena	53
Nazaretarren sinestezina	57
Jesusek Apostoluak sortzen eta bidaltzen ditu	61

Ogi eta arrainen ugalketa	63
Haur ttipiak dira zeruko erreinuaren jabeak	67
Kanaango emakumearen fedea	69
Pedroren aitortza	73
Haurrak eskatzen diote Jesusi, honek bedeinka ditzan	77
Salbamina erraza ota da, gero?	79
Jesus epaitua eta hilarazia	83
Jesusen piztuera eta zerura igotzea	91



“Ni nor naizela diozue?”⁽¹⁾

Gogoan har dezagun San Joan Apostoluak bere ebanjelioaren hasieran esaten diguna.⁽²⁾

Entzun dezagun:

“Hasieran zen Hitzaz, eta Hitz hori Jainkoagan zen, eta Jainkoa zen hitza. Hori zen hasieran Jainkoagan. Beragatik egin izan dira gauza guztiak; eta Bera gabe egin denetik ez da deusik egin. Berarengan zegoen bizia, eta bizia zen gizonen argia, eta ilunpeek ez zuten argi hori ulertu”.⁽³⁾

(1) Mt 16, 15

(2) Jo 1, 1-4

(3) Jo 1, 1-4

Segituan esaten digu Joanek Jainkoak gizon bat bidali zuela, argiaren testigu izan zedin, hots, Joan Bataiatzailea. Bera ez zen argia, baina bai argiaren testigantza emateko bidalia, haren bitartez denek sinets zezaten.

Bazen, bai, egiazko argia, mundu honetara datorren gizon orori argi egiten dioena. Munduan zen, eta mundua, bera dela bide egina zen, eta munduak ez zuen hura ezagutu. Bere etxera etorri eta etxekoek hura ez zuten onartu.

Onartu zuten guztiei, ordea, Jainkoaren seme bihurtzeko ahalmena eman zien, Haren izenean sinesten dutenei, alegia. Horiek Haren izenean sinesten dute, zeren horiek ez baitira odoletatik, eta ez haragiaren nahikaririk ere, baina Jainkoagandik jaioak dira.⁽⁴⁾

"Eta Hitza haragi egin zen eta gure artean bizi izan zen, eta guk Haren aintza ikusi genuen, grazia eta aintza Seme bakarrari zor zaion bezalakoa, alegia, graziaz eta egiaz beteari dagokion bezala".⁽⁵⁾

* * *

Hauxe dugu, bada, Jesus Belenen Ama Birjinagandik jaioa, Egiptora ere ihesi joan

(4) Jo 1, 1-4

(5) Jo 1, 1-14

behar izan zuena,⁽⁶⁾ eta gero Nazareten urte asko egin zituena,⁽⁷⁾ etxeko lanetan aritzen zena, larunbatez besteak bezala sinagogara joaten zena, etab., hots, besteen antzeko bizitza arrunta egin zuena.

* * *

Baina hogeita hamar urte bete zituenean, ama eta etxea utzi —San Jose ordurako hila izango zen—, eta, mundu zabalera irten zen —Palestina barruan, hori bai— jendeari sermoiak eginez, gaixoen sendaketak eta beste mirari asko obratuz. Jendea erruz pilatzen zitzaion egiten zituen mirariak ikusi eta Haren hitza entzutera.

Hiru urtez edo, iraun zuen bizitza ageriko honek. Bitartean etsaiak ere pilatu ziren, ordea, Haren aurka, Jainkoa balitz bezala mintzo zela eta; baina Jainkoa ez ote da, ba, bakarra, zeruetan bakarrik bizi dena? Hori zioten Jesusen etsaiek.

Juduen artean idazkari, fariseo, saduzeo eta ikasienak ziruditenak erabaki zuten preso hartu behar zela gizon hori —Jesus, alegia— baina isilean eta jendeak jakin gabe —jende hori bere alde jar ez zedin—. Eta hala egin ere

(6) Mt 2, 13-15


(7) Mt 2, 19-22

zuten gauez, Jesus Jerusalengo Olibadi mendian, Getsemani deritzan baratzean, otoitz egiten zegoela jendea ohartu gabe, alegia. Soldadu piloa, morroi eta beste eraman zituzten hara. Judas apostoluak, diru-truke esan zien non egoten zen Jesus, eta berbera —Judas— joan zen tokia erakustera eta maisua saltzera.

Jesus, bada, preso hartu eta eraman zuten Ana eta Kaifasengana, judu erlijioan buruzagi zirenengana. Eta horiek heriotzera kondenatu zuten Jesus.⁽⁸⁾

Jesusek, ordea, soil-soilik Bera nor zen aitortu zuen eta hori ere Israelgo apaiz nagusiak Jainkoaren izenean galdetu ziolako.

(8) Ikus Mc 14, 62-65



“Ama Birjinagandik jaioa” (Lc 2, 7)

Mesias hori, hots, gizonen Salbatzailea, Belenen jaio eta Nazareten biziko zela — harik eta bizitza ageria egiten hasi arte—, hori guztia jakin zezaketen juduek, Jainkoak berak aldeztu aurretik profeten bidez adierazi zielako. Testamentu Zaharreko liburuetan zetorren⁽⁹⁾. Mesias baten esperoan zeuden, bada, juduak.

Andre Maria izango zen Mesias horren ama. Andre Mariak aingeru baten bidez izan zuen zeruko abisua, hots, haur baten ama gertatuko zela, eta haur hori izango zela gizonen Salbatzailea; eta Ama Birjinak baiezkota eman zion Jainkoari.

(9) Ikus adibidez Is. 7, 7ss.



Sortu zuen, bada, haurra, eta haur hori Belengo estalpean jaio zen. Eta mendiko artzainak izan ziren lehenak bera adoratzera etorriak. Ama Birjinak birjintasun-botoa egin zuen ordurako ⁽¹⁰⁾. Eta ama izango zela aingeruak jakinarazi zionean, hori, bere botoaren arabera ezina zela, adierazi zion aingeruari.

Egia da, bestalde, ordurako San Joserekin ezkontzeko bidetan zebilela. Nola lotzen dira elkarrekin gauza horiek guztiak? Hara, bada, nola lotzen diren; San Jose gizon santua zen, Ama Birjina eta haurraren zaindari izateko Jaunak propio hautatua.

Erromako Enperadoreak nahi zuen jakin zenbat jende edo menpeko zeuzkan bere inperioan, eta horretarako lege bat eman zuen: bakoitza joan zedila bere jatorriko herrira ize-na ematera, eta hain zuzen, hori betetzeko Jose eta Mariak Belenera joan behar izan zuten, eta horregatik gertatu zen Jesus han jaiotzea. Belengo estalpean jaio zen, bada, eta artzainak izan ziren lehenik gurtu zutenak eta erre-galiak egin zizkiotenak.

* * *

(10) Ikus Lc 1, 34.

Eta urrunetik —hots, sortaldetik— etorri ziren beste jaun batzuk ere, zeruan agertu zen izar bati jarraituz. Hauek hiri nagusira joan —hots, Jerusalemenera—, eta erregeri galdetu zioten non zen juduen errege jaio berria.

Asaldatu zen errege hori, eta apaizei galdetu zien ea non jaio behar zuen Mesias jaunak; eta haiek Belenen jaiotzeko zela esan zioten. Erregek esan zien orduan Magoei non zegoen haurra, eta bai beste hau ere: *“Zuek, haurra adoratu ondoren, etor zaitezte niregana, nik ere jakin eta adoratzeraz joan nadin”*, Herodes zen orduan errege Jerusalemenean, eta beraren asmoak ez ziren bat ere zuzenak. Nahi zuen, bada, haur jaioberria hil. Magoak joan ziren Belenera, haurra adoratu zuten, erregaliak ere utzi zizkieten, baina aingeruaren abisuz ez ziren gehiago Jerusalemenera itzuli. Zuzenean bere herrira itzuli ziren ⁽¹¹⁾.

Ohartu zenean Herodes Magoek ez zutela esana egin, biziki haserretu zen eta ordena eman zuen Belen eta inguruetan jaiotako ume denak hiltzeko. Zelako burugabekeriak asma-


(11) **Errege Magoak.** San Mateo ebanjelariak —eta berau da Magoen aipamena egiten duen bakarra—, ez du inon ere esaten Magoak errege zirenik. Soil soilik esaten du Jerusalemenera sortaldetik etorri zirela, hau galdezka: “Non da juduen errege jaio berria? Guk sortaldean haren izarra ikusi dugu eta hura adoratzeraz gatoz”. Ziurraski, erdi jakintsu batzuk izango ziren, izar kontutan etab. Zerbait adituak. Eta haurrari erregaliak ekarri zizkieten: urrea, intzentsua eta mirra (Mt 2, 11).

tu ohi dituen gizonak! Hainbeste ume alferrik hilaraziak! Eta hain zuzen, Herodesek hil nahi zuen ume bakarra, salbatu egin zen!

Jesus haurraren zirkunzisioa eta izena Jesus ipintzea ere Belenen gertatu zen. Belen zen David Testamentu Zaharreko erregearen jaioterria.

Eta nola hartu zituen gora-behera horiek guztiak San Josek? Berak ez zekien tutik. *"Hauek Jainkoaren kontuak dira"*, esango zuen Ama Birjinak. *"Berak esan diezaiola"* (San Jose-ri, alegia). Eta bitartean, San Jose gizajoa so-fritzen. Maria haurdun zela ohartu zen San Jose, eta honek zer pasatzen zen ez zekien. Mariak esan zuen berekiko: *"Ni ez noa deusik esatera. Jainkoaren gauzak dira hauek. Berak esan diezaiola, bere borondatea hala baldin bada"*.

Magoak, Jainkoak agindu bezalaxe, ez ziren Jerusalenera bueltatu, eta Jerusalengo errege Herodesek, Belen eta inguruetako ume denak hiltzeko agindua eman zuen. Hala Jesus ere horiekin batean hilko zen (Hala uste zuen berak). Baina alfer-alferrik izan zen dena, zeren garaiz aingeru batek agindu zion familia santuari Egiptora ihes egin eta hantxe egoteko, harik eta handik itzultzeko abisua hartu arte.



Jesus haurra Egiptoko desterruan

Magoak izeneko jaun batzuk etorri ziren Jesus haur jaioberria adoratzera, zeruko izar bat gidari zutelarik⁽¹²⁾. Baina ez zekiten non zen zehazki jaioberriaren tokia. Joan ziren, bada, Jerusalemenera, kapitala zelako, han egongo zela pentsatuz; baina ez, ez zegoen han. Hori bai, apaizen bidez beste hau jakin zuten: non egon behar zuen, alegia: Belenen, David errege izanaren jaioterrian⁽¹³⁾.

Jerusalengo errege Herodesek eman zien albiste hau, apaiz eta jakintsuekin hitz egin ondoren. Eta ez hori bakarrik. Jerusalengo errege horrek gaineratu zuen: "*Zuek haurra*

(12) Mt 2,2

(13) Mt 2,8

adoratu ondoren, etor zaitezte berriro honera niri albistea ematera, ni ere adoratzera joan nadin". Baina haiek ez zuten bete erregeak eskatu ziena, eta beste bide bat hartuz, beren herrirantz abiatu ziren.

Zer dela eta, egin zuten hori? Aingeruak hala egiteko agindu zielako. Jerusalengo erregea gezurretan zebilen. Nahi zuen, beraz, errege jaioberri hori hilaraztea, berari erregetza ken ziezaion beldurrez.

Herodes erregea konturatu zenean Magoek ezer esan gabe itzuli zirela beren herri-
ra, sumindu egin zen biziroki, eta ume jaioberria hiltzeko asmoa hartu zuen; errege hori Belenen jaio zela bazekien, bai, baina beste zertzeladarik ez. Zer egin zuen orduan? Belenen eta inguruetan azken boladan jaiotako ume guztiak hilarazi. Hau izan zen "Inozente" edo haur errugabeen hilketaren deitzen duguna. Jesusen ordeztu eta izenean hilak izan ziren, baina Jesus bera ez zen hil. Zergatik? Aingeru batek abisatu zielako Jesusen gurasoei umea hila izateko arriskutan zela, eta hura hartu eta aguro handik irten eta Egiptora joateko, hots, atzerrira. Eta horixe egin behar izan zuten Jesus, Maria eta San Josek.

Egipto hori ez zegoen Lur Santutik hain urrun, baina ez hain gertu ere. Eta bien bitartean dagoen desertu edo eremu handi bat igaro behar zen. Ez zen leku bat ere egokia

bakarrik ibiltzeko. "*Caravana*"k ere izaten ziren, ordea, eta horien arrimuan, zerbait pagatuz, eta janari batzuk Magoek eman zieten diruaz erosiz, abiatu ziren gamelu eta beste bide aringarri batzuk erabiliz.

Hondarra besterik ez dagoen lekuan, janari eta edari batzuk aurretiaz harturik eta karabana horietako batean sartuz, abiatu zen, bada, familia santua Egiptorantz. Egipto eta Lur Santuaren artean harremanak ere baziren. Lur Santutik ihes egindako jendea ere bazen han. Eta toki egokiren bat biltzea ez zitzaien asko kostatu beren herritar batzuen laguntzarekin.

Zenbat denbora iraun zuen Egipton egote horrek? Zehatz ez dakigu. Israelgo errege (Herodes) hil arte, haur inozenteak hilarazi zituen hori hil zen arte, alegia. Egiptoarrek bazuten beren erlijioa; baina Egipton juduen erlijioa gordetzen zuten israeldarrak ere baziren, eta ez gutxi; eta horiekin, eta horien ondoan, bizi izan ziren Jesus haurra, Maria eta Jose.

Egipto oso herri aparta zen. Nahikoa aurreratua. Erlijio berezia zuena. Antzinako monumentuak zituen (piramideak eta abar). Herri jentila, baina juduekin harremanak zituen. Egipton bizi ziren juduek, ordea, bazuten beren erlijioa segitzeko askatasuna. Noiz arte egon beharko zuten han? Israelgo errege hura —Herodes— hil arte. Orduan zeruko

abisua izan zuten, hots, Israelgo herrira itzultzeko. Eta haiek halaxe egin zuten. Zenbat urte zituen haurrak Nazaretera itzuli zenean? Hori zehatz ez dakigu. Ebanjelioak ez digu esaten.

Egipto Afrikako nazio zahar bat da, bere kultura, erlijioa eta abar dituen. Israel, al-diz, Asiako bazter batean dago kokatua, eta biak ez daude bata bestetik hain urrun ere. Testamentu Zaharreko aldi batean, jakina denez, Israel Egipton bizi izana zen, gainera.



Jesus Nazareten bizi izandako aldia

Egiptotik itzultzean, Jesus bere familia-
rekin Galileako Nazaretera joan zen bizitze-
ra, Belenera joan aurretik han bizi baitziren
Maria eta Jose.

Jesus adinean aurrera zihoan. Hamabi
urte zituenean, gurasoek Jerusalengo tenplu-
ra eraman zuten Pazko garaian. Eta han zebi-
len Jesus haurra dena ikusi eta ikasi nahian.
Eta hango zereginak bukatu zirenean, gura-
soak talde batean sarturik, Nazaretera bide-
an abiatu ziren, haurra ere han nonbaiten eto-
rriko zelakoan. Baina ez. Haurra ez zen
inongo taldetan ageri. Hura pena eta larrial-
dia guraso haiena!

Berriz ere Jerusalemenera joan behar izan
zuten, bada, hango tenplura. Eta bai, han aur-



kitu zuten semea, maisuen irakaspenak entzuten eta haiei erantzuten. Orduan amakesan zion. *“Seme, nolatan egin diguzu hori? Hemen ibili gara aita eta biok saminez beterik zeure bila”*. Eta haurrak erantzun: *“Zergatik ibili zarete nire bila? Ez al zenekiten nik nire Aitaren gauzen ardura izan behar dudala?”*

Dena den, bere gurasoen nahia eta agindua egin zuen Jesusek, eta haiekin Jerusalem-dik Nazaretera joan zen.

* * *

Nolakoa izan zen Nazaretoko bizitza? Larunbatetan herriko sinagogara joaten zen Jainkoaren legea ikastera, sermoiak entzute-ra, otoitz egitera, eta abar.

Etxean amari laguntzen zion erreka-duak egiten eta abar, eta zerbait hazi zenean, San Josei ere bai arotz lanetan.

Jai egunetan —larunbatez, alegia— bere adineko mutikoekin jolasten zen; baina zerbait arraro eta ohi ez bezalakoa zela ere sumatuko zuten hauek harengan.

* * *

Gero, berriz, ageriko bizitza egiten hasi zenean, eta bere herrira, Nazaretera alegia, si-

nagogan hitz egitera joan zenean, kontra egitera jarri zitzaizkion bere herritarrak. *"Zer us-te du honek, besteak baino gehiago dela bera"* (esango zuten).

Bere herrian batez ere gertatzen zaio hau gizonari: aintzat hartua ez izatea, alegia. Besteak baino gehiago izatea ez diote barkatzen...

* * *

Jesusen bizitza agerikoan zera ikusten dugu: dirudun emakume batzuek, ongi ezkonduak edo zirenek, beren dirutik mantentzen zutela Jesus. Honek bizitzeko behar zue-na ematen ziotela, alegia.

Eta Jesus hiltzera zihoanean, gurutzetik zintzilika zegoenean, han gurutze azpian bi aurkitzen ziren, hots: Jesusen Ama eta Maria Magdalena.

* * *

Jesusen bizitza agerikoan, berriz, Maria, Jesusen Ama, non bizi zen? Ez Nazareten, itxuren arabera, zeren ordurako San Jose zenua zen; eta semea ere jendartera bizitzen etxetik atera zenean, non zegoen Jesusen

Ama Maria? Ez dakigu, baina itxuren arabera, Betanian, Jerusalendik ez urruti, hots, Lazaro, Marta eta Maria bizi ziren etxean⁽¹⁴⁾.

Hauek diru aldetik ez dirudi hain gaizki zebiltzanik, eta Jesusen amari ostatu emateko ez zuten erreparorik izango.

Hitz batean esateko, Jesusek bere bizitza agerikoan joan-etorri asko egiten zituen, hitzaldi asko han eta hemen, gaixoen sendaketa asko, mirari asko; baina etsaiak ere ez ziren gutxi eta ez zeuden lo. Zergatik? Jesusek bere burua Jainko egiten zuelako, eta hori biraoa zen haien ustez: "*Jainkoa bakarra da, eta zeruan dago*", esango zuten haiek.

Mesias ez ahal zen, ba, mundura etortzekoa? Bai, baina Mesias gizon hutsa izango zen, haien ustez, ez Jainkoa. Jesusek bere burua Jainkoa egitea birao zen haientzat. Jainkoa bakarra da, eta zeruan dago.

Arrazoi horrengatik fariseo, saduzeo, apaiz eta abarrek Jesus Jainkoaren etsai bezala hartuko dute.

(14) Etxe hori ondo zetorkion Jesusi ere gaua pasatzeko, Jerusalem aurkitzen zenean. Galileatik, aldiz, urrun egingo zitzaien. Urrun eta arriskutsu.



Jesusen Bizitza Agerikoa (I)

Jesus hogeita hamar urte —gutxi gorabehera— bizimodu isila egiten igaro ondoren, hasiko da Nazaretetik irten eta Lurralde Santuan barna predikuak eta mirariak egiten. Predikuak, bai sinagogetan eta bai lur zabalean. Jendea erruz biltzen zen Jesusen hitza entzutera, eta ez haren hitza entzuteagatik bakarrik. Egiten zituen sendaketa harrigarrietan parte izateagatik ere bai, noski.

Garai hartan gaitzek jotako jende asko bizi zen munduan —bai Lurralde Santuan eta bai beste lurraldeetan ere—: itsu, gor, herren, lepradun, mutu eta beste. Gai askoz jotako jendea, alegia. Eta Jesus handik hurbil zebilela entzuten zutenean, haien etxekoek Jesusen-

gan eramaten zituzten gaixoak, Jesusek sendatzeko, alegia. Eta bai honek halaxe egin ere.

Eta hala erruz zabaldu zen Jesusek egiten zituen mirakuiluen fama eta entzutea. Eta hain da hori egia, non Jesus berbera hasi baitzen herrietatik ihes egiten eta bakardadean bizitzen, eta jendeak hara joan behar izaten zuen Beraren bila. Eta beren gaixoekin joaten ziren. Eta Jesus onak sendatu egiten zituen.

Orduan eta horrela, Jesusen entzutea eta fama anitz zabaldu zen bazterretan, halako moduan, non Berberak ere ihes egin behar izaten zuen jendartetik, eta bakar lekuetan egon nahi izaten zuen, jendartetik ihes eginenez⁽¹⁵⁾.

Baina alferrik. Jesusek sendatuei esan arren sendaketaren berri inori ez emateko, haiek pozaren pozez, lau haizetara zabaltzen zuten beren sendaketaren berria. Eta ez zen gaixoen sendaketa bakarrik. Itsasoaren baretzearen mirakuilua ere berdin agertzen zaigu Jesusen bizitzan.

Zer erakusten digute gauza hauek guztiak? Bihotz oneko gizona zela, alde batetik, hots, errukiorra eta mesede egitearen zalea. Baina baita ere, beste aldetik, nahiago zuela gizonaren arimak sendatu, gorputzeko gaitzak baino.

(15) Ikus Mc 4, 35-40

Jesusen bizitzan agertzen dira gaitz batzuk oso nabariak, adibidez, deabruak bere menpean hartutako gizonak, eta horrelakoen sendaketak. Horra Jesusen bizitzan behin baino gehiagotan agertzen den mirakuilu mota: Gizonak etsaiaren menpean egotetik libratzea, horra Jesusen egiteko nagusia.

Itsaso haserrearen baretzea, horra Jesusen beste zeregin bat, ebanjelioan maiz azaltzen dena. Esate baterako, Galilean bada lurbaruko itsaso bat, arrantzaleek txit emaita zutena, arrain asko ematen ziena, alegia. Arrantzale horietatik atera zituen Jesusek bere apostolurik gehienak. Arrainen arrantzale izan ondoren, gizonen arrantzale izan zitezten, alegia.

Jesusen jarraian maiz biltzen zen jende ugaria. Orduak pasa eta pasa, eta gosetu egitzen zen. Jatekorik ere ez zuten berekin. Behin gertatu zen —Galileako itsas-ondoan— jendetza handia biltzea Jesusen hitza entzutera. Berandutu zen. Ez zuten jatekorik. Eta ez —han gertuan behintzat— jatekoa erosteko tokirik ere.

Bazen, ordea, mutiko bat. Mutiko honek berekin zeuzkan bost ogi eta bi arrain. Jendea eseri zedila agindu zuen Jesusek. Eta berak ogia eta arrainok hartu, eta Aitari otoitz egin ondoren, Apostoluei eman zizkien jende ar-

tean banatzeko. Eta bai jendeak jan eta oraindik hondarrak ugari gelditu ere⁽¹⁶⁾.

Itsaso haserrearen baretzea izan zen beste gertakari bat oso harrigarria.

Eta etsaiak harturik zeuzkan gizonengandik deabruak egozte, beste bat.

(16) Mc 6, 35ss.



Jesusen Bizitza Agerikoa (eta II)

Jesusek, Nazaretetik atera zenean, Kafarnaun aldera jo zuen. Kafarnaun lur-barruko itsaso baten ondoan kokatua zen. Noranahi joateko bideak ere handik edo gertutik hartzen ziren. Esdrelon-go lautada ere handik hurbil dago. Beraz, arrantzale jendea, joan-etorritan zebilen jendea, merkatari, salerosle etab., Kafarnaun-en inguruan izaten ziren.

Jesulentzat ere ez zen hau toki txarra, eta beronetan kokatuko da, batez ere bere lana egiteko, eta hamabi Apostoluetatik gehienak ere hemengo jende artetik aukeratuko ditu.

Jesusek madarikazio bat ere bota zion herri honi, Berak hainbeste mirari han egin ondoren eta hainbeste sermoi prekikatu ondoren konbertitu ez zelako!

Eta herri honetan zegoela, egin zuen Jesussek mirari handi bat: etorri zitzaion, alegia, buruzagi bat eta eskatu zion bere etxera joateko, arren hiltzen zegoen bere seme bat sendatzera. Eta Jesussek: *"Goazen bada"*.

Eta bazihoazen. Eta haren etxeruntz zihoazela, horra non datorren mezulari bat aitari esatera: *"Ez eman beste nekerik Jaunari, zeren zure semea sendatu baita"*. Aitak galdetu zuen ea zer ordutan sukarrak alde egin zuen harengandik. Hobekuntza ea zer ordutan izan zen, alegia. Eta erantzuna: *"Atzo, zazpigarren orduan sukarrak utzi zuen gaixoa"*⁽¹⁷⁾.

* * *

Gaur egun, Kafarnaun-en ozta gelditzen da harri zahar pilo bat besterik⁽¹⁸⁾.

Han bizi izan zen Jesus, hango arrantza-leetatik atera zituen Apostolurik gehienak, hango sinagogan predikatu zuen.

Kafarnaun ez da, ez, toki txarra Jainkoaren graziari erantzuten ez dionari zer gertatzen zaion ikusteko. Besteak beste, hemengo arrantzale izan zen San Pedro, eta bai beste Apostoluetatik gehienak ere. Baina gaur herri

(17) Joh 4, 52

(18) Esan behar da, halere, azken urteotan israeldarrek lan handia egin dutela Kafarnaun berreraikitzen.

bezala ozta-ozta bizi da. Eta lur jo zuen, gehiago ez berpizteko.

* * *

Jesus bizitza agerikoa egiten hasi baino lehen, azaldu zen Joan Bataiatzailea ere, Jesusen aitzindaria, Jesusi bidea prestatzera etorri zena. Jesus eta Joan elkarren lehengusuak ziren.⁽¹⁹⁾

Joan honi Bataiatzailea deritzaio, Jordan ibaiaren ondoan bataiatzen ari zelako, noski. Jendea erruz etortzen zitzaion bataio eske eta hark bataiatu egiten zituen eta egindako pekatuen damua izan zezatela eskatzen zien.

Jesus berbera ere, oraindik Nazareten bizi zelarik, Joan lehengusuaren berriak entzun, eta bera ere Joanen bataioa hartzera joan zen. Eta Joanek bai bataiatu ere Jesus. Ebanjelioak esten digu, gainera, orduan zerua zabaldu eta Aitak Jesusi buruz esandako hitzak entzun zirela: *"Hau dut nik neure Seme maitea, Zuregan dut Nik Neure poz eta atsegina"*⁽²⁰⁾. Eta Jesus, segituan, penitentzia egitera joan zen desertura.

* * *

(19) Ikus Lc 1, 36, 43

(20) Ikus Lc 3, 22.

Azken urteotan maiz ahotan erabili da Kumrango monjeen izena. Zer ziren horiek? Nolabait judutarrak ziren, bai, baina aparte bizi ziren, monje batzuk balira bezala, alegia. Zenbaitek uste izan du Joan Bataiatzailea ere horietakoa izan zela, baina hori ez dago bate-re garbi.

Jesus, bada, Nazaretetik irten, eta beste asko bezala, Joan Bataiatzailea bataiatzen ari zen lekura joan zen. Eta baita Joanen eskutik bataioa hartu ere. Eta zeruko ahotsa entzun zen orduan: "*Hau da neure Seme maitea*"⁽²¹⁾.

(21) Mt 3, 16.



Mendiko hitzaldia

Hiru kapitulu handi, hots, 5-7, betetzen ditu hitzaldi honek San Mateoren ebanjelioan. San Lukasen ebanjelioan, aldiz, kapitulu baten erdia besterik ez⁽²²⁾. Badirudi Mateok handik eta hemendik hartutako gaiak bildu dituela hiru kapituluotan.

Nolanahi den, guk lan honetan gehienbat San Mateo hartuko dugu gidari, bestea ere ahortzi gabe.

* * *

Belardi batean gelditu zen Jesus. Jende-oste galanta zetorren bere ondoren. Zergatik

(22) Ikus Lc 6, 17-49



edo zertara zetozen? Jainkoaren hitza Jesusen ezpainetatik entzuteko, noski, eta beren gaitxoak —eritasunez joak, alegia— Jaun honek senda zitzan; hau zen, noski, arrazoi printzipala. Zorion edo zoriontasunaren bila zebilen, bada, jende hura. *Zoriona*: gizonarentzat gai garrantzizkorik baldin bada, hauxe, noski! Nork ez du zoriontsu izan nahi? Baina zoriontsu izateko zer bilatu behar da? Hor dago koska. Hortarako bidea, alegia, ikasi behar lehenago.

Hasi zen, bada, Jesus:

“Zoriontsuak gogoz pobre direnak, zeren eta beroiena baita zeruko erreinua. Zorionekoak otzarak, beroiek izango baitira lurraren jabe. Zorionekoak negar egiten dutenak, kontsolatuak izango baitira. Zorionekoak justiziaren gose eta egarri direnak, gose-egarri horretaz aseak izango baitira. Zorionekoak errukiorrak, beroiek ere errukia lortuko baitute. Zorionekoak bihotz-garbidunak, zeren beroiek ikusiko baitute Jainkoa. Zorionekoak justiziagatik persekuzioa jasaten dutenak, zeren zeruko erreinua beroiena baita”⁽²³⁾

* * *

Entzun dugu, bada, Jesusen iritzia eta ikusmoldea. Gizon arruntak, ordea, ez ditu

(23) Mt 5, 3-10

gauzak hola ikusten. Harentzat zoriontsua da atseginetan ibili dabilena, diruduna dena, bere nahierara dabilena, gogoak ematen diona baizik egiten ez duena, etab.

* * *

Jesusek hemen zorionerako bidea erakusten digu, eta bide hori ez dator bat munduak erakusten duenaz. Hori esan beharrik ez dago. Garbi geldi, bada, hau.

Baina San Mateoren 5. Kapituluari bada-tor besterik ere:

—Zorionekoak zuek, madarikatzen zaituztenean, eta persegituak zaretenean.

—Zuek zarete lurraren gatzak. Gatzak gatzitzeko indarra galduko balu, nola berriz gatzitu?

—Zuek zarete lurraren argia.

—Mendi gainean jarrita dagoen hiria ezin daiteke gorderik egon.

—Ni ez naiz etorri legea kentzera, osatzera eta betetzera baizik⁽²⁴⁾.

* * *

Galde diezaiogun Jesusi —eta geure buruari— Jesusek hemen dioenari buruz:


(24) Mt 5, 11-14

—Jesus: argi eta bero itzatzu geure buru-
bihotzak zeure segizioan beti zuzen eta azkar
ibil gaitezen.

—Egin ditzakegun hutsak barka, Jauna.

Ama Birjinari:

—Okertu gabe eta aspertu gabe, beti
Jesus zeure Semeari jarraiki diezaiogun.
Amen.



Ereilearen parabola⁽²⁵⁾

Jesus etxetik irten eta itsas-ondoan eseri zen; eta jendetza handia bildu zitzaion. Orduan zer egin zuen Jesusek? Txalupa batera igo, eseri, eta bertatik jendeari hitz egiten hasi. Jendea, berriz, itsas bazterrean zegoen, eta Jesusek orduan paraboletan gauza asko esan zizkien:

Horra adibidez, ereilearen parabola:

—“Ereilea ereitera irten zen. Eta ereiten zuen bitartean, ale batzuk bide-bazterrean erori ziren eta zeruko txoriek jan egin zituzten. Beste batzuk harritartean erori ziren, lurrik aski ez zegoen lekuan, eta etorri ziren zeruko hegaztiak eta aleok jan egin zituzten.

(25) Ikus Mt 13,3ss.

Beste ale batzuk, berriz, harri artean erori ziren, eta nola ez zuten lurrik aski, aguro irten bai, baina lur sakonik ez eta eguzkia irten zenean, ihartu egin ziren; sustrai sakonik ez zutelako, noski. Beste batzuk arantza-artearen erori ziren; arantzok, bai, aguro hazi, baina sustrairik aski ez, eta ihartu egin ziren. Azkenik, beste batzuk lur onean erori eta fruitua ekarri zuten, hots, batzuk bateko ehun, besteak hirurogei, bata bateko ehun, besteak berrogei, besteak hogeita hamar. Entzuteko belarriak dituenak, entzun beza”.


Beharbada, haziaren emankortasuna Jesusen lurraldean ez da hemen esaten zaigun bezain ugaritsua, baina ez du axola; hemen Jesusek esan nahi duena garbi dago, hots, zerutik eman zaigun aleari fruiturik eman dezan, ahaleginak egin behar dizkiogula. Horretarako oztopoak eta trabak kentzen ahalegindu beharko dugula, alegia.

Horretarako bakoitzak beharko du ikusi Jainkoaren graziari norberak jartzen dizkion oztopoak zein diren, eta oztopo horiek kentzeko Jainkoari laguntza eskatu eta norberak ere gogotik lan egin.

* * *

Zertarako gaude munduan? Fruitua ekartzeko. Hor dugu alea, Jainkoak bataioan

eman ziguna eta guk fruitu ematera ekarri behar duguna. Haziaren emaitza galarazten dituzten oztopoak erditik ken ditzagun. Hazia berez on da eta emankorra, baina lagundu egin behar zaio, aldamenean sor daitezkeen belar txarrak kenduz eta fruitu gehiago ematearen alde lan eginez.



Elbarriaren sendaketa⁽²⁶⁾

Berriz ere Jesus Kafarnaun-en sartu, eta etxean zela bazterretan zabaldu zen. Anitz jende bildu zen ateraino, eta Jesusek hitz egi-ten zien. Eta horra non datozen Berarengana lau gizon, elbarri bat dakartela. Eta zegoen jendetzagatik ezin zezaketen Jesusenganaino eraman gizon hori. Orduan etxearen gainal-dea biluztu eta handik behera jaitsi zuten gai-xoa, beronen ohetxo eta guzti.

Haien fedea ikustean, esaten dio Jesusek elbarriari: *“Ene seme, barkatzen zaizkizu zeure bekatuak”*.

(26) Mc 2, 1-12

Baziren han eskriba batzuk eserita, beren barnean hau ziotenak: *"Zergatik hitz egiten du honek horrela? Biraio esaten ari da. Zeinek barka bekatuak, Jainkoak izan ezik?"*

Jesusek ordea, zer ari ziren pentsatzen ezagutuz, esaten dio elbarriari: *"Zeuri esaten dizut: Altxa, har ezazu zeure ohatzea, eta zoaz zeure etxera"*. Baziren han, ordea, eskriba batzuk eserita, beren baitan honela ziotenak: *"Zergatik hitz egiten du honek horrela? Biraoka ari da. Nork barka ditzake bekatuak, Jainkoaz kanpo?"*


Jesusek, izpirituz ezagutuz zer pentsatzen zuten haiek, hauxe esaten die: *"Zer pentsatzen ari zarete zeuen barrenean? Zer da errazago: elbarriari esatea: barkatzen zaizkizu zeure bekatuak, ala esatea: Altxa, har ezazu zeure ohatzea, eta habil? "Jakín ezazuen, bada, gizonaren Semeak baduela lurrean poderioa bekatuak barkatzeko, —esaten dio elbarriari: — Zeuri esaten dizut: — Altxa, har zeure ohatzea, eta zoaz zeure etxera"*.

Eta berehala altxa zen; eta ohatzea harturik, jaiki egin zen denen aurrean, denek Jainkoa goratzen zutela, esanez: *"Ez dugu sekula holakorik ikusi"*.

Segituan, honen ondoren datorren pusketan, Mateo apostulu eta ebanjelariaren konbertsioa kontatzen zaigu. Jesusen deiari

erantzunez, bere publikano ofizioa utzi eta Jesusen segizioan, Apostolu eta Ebanjelari ere izateraino helduko da⁽²⁷⁾ .

(27) Ikus Mc 2, 13-22



Lepradunaren sendaketa⁽²⁸⁾

Jesusen garaian oso zabaldurik zegoen lepra edo legena Palestina aldean. Eta etorri zen Jesusengana lepradun bat; eta belaunikaturik, esan zion: *“Nahi baldin baduzu, senda nazakezu”*.

Jesusek berriz, errukiturik, eskua luzatu zuen, eta gaixoa ukituz, esan zuen: *“Nahi dut. Senda zaitez”*. Hori esan eta, lepra berehala aldentu zen harengandik, eta garbiturik gelditu zen. Jesusek bidali egin zuen, zorrotz esanez:

—*“Begira, gero, ez inori esan. Zoaz, hala ere, apaizarengana eta eskaini garbikuntzaren ordai-*

(28) Mc 1, 40-45

nez Moisesek agindutakoa, ezaugarritzat izan dezaten".


Hura, ordea, handik irten bezain laster, gertatua ozenki esaten hasi zen, halako moduz, non Jesusek ezin baitzuen herrietan ageriz sartu, eta kanpoan gelditzen zen; leku bakartietan. Jendea, berriz, leku guztietatik zetorkion.

Lepra, hots, legena, eritasun kutsakorra, haragiak usteltzen eta erorarazten dituen, Jesukristoren garaian oso zabaldua zegoen, Ebanjelioan ikusten den bezala. Gaitz horretaz kutsatuak zeudenak gizartetik kanpo bizi behar izaten zuten beren gaitza besteei zabal ez ziezaioten.

Lepra edo legena, ordea, gorputzeko gaitza da; baina badira beste lepra-mota batzuk, ez gorputza, baina bai arima kutsatzen dutenak: horiek ditugu denetan beldurgarrienak.

* * *

Besteetatik ere bai, baina batez ere arimako gaitzetatik begira gaitezen. Horiek dira, hain zuzen, Jesus gurutzera eraman zutenak, gizona ere betirako galtzeko perilean ipintzen dutenak. Pekatu mortala da gaitzetan txarre-na, zuzen-zuzenean Jainkoaren eta gizonaren kontra dihoalako.



Bi sendaketa: sinagoga-buruaren alabarena eta berau baino lehenago zenarena

Jesusek berriz ere itsasoz beste aldera jo zuen eta jende handia bildu zitzaion eta itsas ondoan zen.

Eta horra non azaltzen den sinagoga-buruetako bat, Jairo izenekoa, eta Jesus ikustean, beronen oinetan belaunikatu, eta arren eta arren erregutzen zion esanez: “Nire alaba azkenetan dago. Etor zaitez, jar ezazu eskua haren gain, salba eta bizi dadin”.⁽²⁹⁾

Eta berarekin joan zen Jesus, eta jendetalde handiak jarraitzen zion honi, alde guztietatik estutzen zutela.

Eta horra emakume bat ere, hamabi urtez odoljarioriaz zegoena eta mediku asko-

(29) Mc 5, 21-43

rengandik izugarriak pairatu zituen, eta bere azienda guztiak haiekin eralki zituen, hobekuntzarik ezertxo ere ezagutu gabe, aitzitik gero eta okerrago zihoana. Honek, bada, Jesusen berri entzutean, jende talde ostenan etorri, eta Haren soinekoa ukitu zituen, bere baitarako esanez: *“Beraren jantzia ukitzen badut, berehala sendatuko naiz”*.

Eta puntuan agortu zen haren odolaren iturria eta gorputzean sentitu zuen gaitz hartatik sendatua zela. Berehala ezagutu zuen Jesusek indar bat irten zela Beragandik, eta jendetaldeari begira esan zuen: *“Nork ukitu ditu nire soinekoak?”*.

Eta ikasleek esan zioten: *“Ikusten ari zara nola jendeak estutzen zaituen, eta halere esaten duzu: Zeinek ukitu nau?”*. Eta inguruan begiratzeko zuen ea nor zen hori egin zuena.

Emakumea, ordea, beldurraren beldurrez eta dardaraz —bere barrenean gertatua zekienak bezala—, etorri eta belaunikatu egin zen Haren aurrean, eta egia osoa esan zion. Eta Jesusek berari: *“Alaba, zeure fedeak salbatu zaitu. Zoaz baketan eta zaude sendatua zeure gaitzetik”*.

* * *


Oraindik hizketan ari zela, badatoz artxisinagogoaren etxekoak esanez: *“Zure alaba hilda: zertarako ari zara Maisua nekatzen?”*

Jesusek, ordea, hari entzunik, esaten dio artxisinagogoari: *"Ez beldurrik izan; soil-soilik, sinets ezazu"*.

Eta ez zuen utzi beste inor bere ondoren etortzerik, Pedro eta Santiagoren anaia Joan izan ezik. Eta badatoz artxisinagogoaren etxera, eta ikusten ditu hango zarata eta negarrak eta garrasiak. Eta barrura sartuz, esaten die: *"Zergatik zaudete asaldaturik eta negarrez? Neska ez dago hila, lo baizik"*. Eta barre egin zioten.

Berak, ordea, hartu zituen neskatxaren aita eta ama, eta Berarekin zeudenak, eta neskatxa etzanda zegoen tokira sartu zen.

Eta neskaren eskua hartuz, esaten dio: *"Talitha cumi"*, esan nahi baita: *"Neska, zeuri esaten dizut, altxa zaitez"*. Eta berehala altxa zen neskatxa, eta ibili zebilen. Hamabi urte zituen. Eta denak harriturik gelditu ziren. Eta Jesusek agindu zien bortizki inork ez zezala jakin, eta neskari jaten emateko.



Nazaretarren sinestezina ⁽³⁰⁾

Jesus jaio, Belenen jaio zen, baina bere bizitzako zatirik handiena Galileako Nazareten egin zuen, eta herri horretantxe zituen bere ahaiderik gehienak eta hurbile-nak.

Jendarteko bizitza egiten hasi zenean, ordea, handik irten eta Galilea eta Judeako herrietan barna zebilen predikuak egiten, gai-xoak sendatzen, etab.

Haren herritar nazaretarrek, ordea, Jesusen jokabidea ikustean — arrotzekin egi-ten zituela bere balentriak etxekoekin egin beharrean—, Nazaretera etorri zenean ez zioten ongi etorri onik egin. Aitzitik, halako

(30) Ikus Mc 6, 1-6

hoztasun batekin hartu zuten, esan nahiko baliote bezala: *"Zergatik ez dituzu hemen egiten hor kanpoan, diotenez, egiten dituzun balentriak?"*

Berek—nazaretarrek, alegia— bazekiten ondo nor zen Jesus. Ezagutzen zuten bere etxea, bere ofizio eta lana, bere ama.

"Nondik eta nola ditu handikeria horiek? Gu ez gaitu engainatuko, behintzat. Ongi ezagutzen ditugu bere etxea eta etxekoak... Zergatik ez ditu egiten hemen hor kanpoan egiten dituen handikeriak?"

Halako susmo txar batekin hartu zuten, bada, Jesus bere herritarrek. *"Gu behintzat ez gaitu engainatuko. Ongi ezagutzen dugu, bai bere etxea, eta bai bere ahaideak".*


Jesus larunbatez, ohi zuen bezala, bere herriko sinagogara joan eta han hitz egin zuen. Baina haien federik ezagatik ezin izan zuen han gauza handirik egin. Hala eta guztiz ere, ebanjelioak esaten digu gaixo gutxi batzuek sendatu zituela han ere, bere eskuak gainean jarriz.

Lukas ebanjelariak kontatzen digu nola Jesus beste egun batez ere Nazaretera joan zen, bere herrira, alegia, eta larunbatez sermoia egin zien⁽³¹⁾. Baina hitzaldi hura herri-

(31) Lc 4, 16

tarrek gaizki hartu zuten, halako moduz, non Jesus hartu, herritik kanpora eramane eta mendi batetik bota nahi izan zuten, baina dena alferrik. Ebanjelioak dioenez, Jesus beren erditik igaroz, bazihoan .⁽³²⁾

(32) Lc 4, 30



Jesusek Apostoluak sortzen eta bidaltzen ditu⁽³³⁾

Apostoluak zergatik eta zertarako? Apostolu hitzak "bidalia" esan nahi du. Nork "bidaliak" dira, ordea? Jesusek bidaliak, noski, baina Aitaren izenean eta Aitaren nahia betetzera bidaliak.

Lehenbiziko Apostoluek beren ondorengoak izan zituzten, eta hauek ere berdin, eta horrela katea honek iraungo du munduaren azkenera arte. Beti Jainkoaren babesa berekin dutela. Elkarte honek badu bere burua, hots, Erromako Aita Saindua. Lehenbiziko Aita Saindua San Pedro Apostolua izan zen.

(33) Mc 6, 7-13

Era honetara, Aita, Seme eta Izpiritu Sainduaren babespean Erromako Elizak, egiazko fedea zaintzen eta zabaltzen du mundu guztian.

Erromako Aita Saindua da, bada, Elizan autoritaterik gorena. Apezpikuak, berriz, Aita Sainduarekin batean, eliz-barrutien zaindaritza dute. Eta biok bat eginik eta elkaturik irakasten dutenean, orduantxe dugu Kontzilio Orokorra edo Unibertsala. Gaur arte horrelako hogeitazagutu ditu Elizak.

Izan dira, noski, mendeetan zehar 20 Kontzilio baino gehiago ere, baina Erromak aintzat hartu ez dituenak kanpoan gelditzen dira, Elizaren egitura jatorra gordetzen ez dutelako.

Otoitz egin dezagun horiek ere batasunera etor daitezen.



Ogi eta arrainen ugalketa ⁽³⁴⁾

O*rdua aurrera zihoalarik, hurreratu ziztaizkion ikasleak, esanez: "Toki bakartia da hau, eta ordua aurrera doa. Bidal itzazu, bada, hemen-dik gertu diren herri eta auzoetara berentzat zer jan eros dezaten".*

Eta Berak erantzun zien: "Emaizkiezue zeuek zer jan".

Eta erantzun zioten: "Joan eta eros ditza-gun berrehun denariotako ogia eta horiei jaten eman diezaiegun".

Eta Jesusek esaten die: "Zenbat ogi dituzue? Joan eta ikus".

(34) Mc 6, 35



Eta agindu zien jendea eserrarazteko saldotan, belar hezearengainean. Eta eseri ziren ehunka eta berrogeita hamarkadatan.

Eta bost ogiak eta bi arrainak harturik, zerura begira jarri eta bedeinkatu zituen, bedeinkatu eta zatitu zituen ogiok, eta bere ikasleei eman zien, eta haien aurrean jarri zituzten. Denek jan zuten eta ase ziren. Eta hondakinekin hamabi saski eta otzara bete ziren.

Eta jan zutenak bost mila gizon izan ziren.

Eta berehala behartu zituen ikasleak txalupara sartzeko, eta Berari aurrea hartuz, itsasoz beste aldera, Betsaidera, alegia, joan zitezen Berak herrari agur egiten zion bitartean.

Eta haiei agur egin zienean, mendira joan zen otoitz egitera.


Eta berandu izanik, txalupa han zen itsas erdian, eta maisua lurrean bakarrik.

Eta arraunetan ari zirela ikustean (haizea kontra baitzuten), gauaren laugarren bigira aldera, fantasma bat zelakoan, garrasika hasi ziren. Eta Berak, berehala hitz egin zuen haiekin, esanez: *"Neu naiz, ez beldurrik izan"*.

Eta igo zen haiek zeuden txalupara, eta baretu zen haizea. Eta gero eta gehiago harriturik zeuden, ez baitzuten ogiena ulertu; aitzitik, itsuturik zegoen haien bihotza. Eta itsa-

soa igaro zutenean, Genesaret aldera heldu ziren eta han lurra jo zuten.

Txalupatik irten zirenean, berehala eza-gutu zuten Bera, eta alderdi hura guztia ibiliz, hasi ziren gaizo zeudenak Berarengana ohatiletan ekartzen. Eta noranahi zihoazela, auzo, hiri txiki edo handietara, plazan jartzen zituzten gaixoak, gutxienez bere jantziaren hegalaz uki zezaten, eta Hura ukitzen zuten guztiak sendaturik gelditzen ziren.



Haur ttikiak dira zeruko erreinuaren jabeak ⁽³⁵⁾

Eta haur txikiak eramaten zizkioten", Jesusek ukitzeko, noski.

Ikasleek, zekarzkitenei mehatxu egiten zieten.

Jesusek, ordea, hori ikustean gaizki hartu zuen, eta esan zien: "*Utzi haur txikiak nigana etortzen, eta ez galarazi, zeren beroiena baita Jainkoaren erreinua. Benetan esaten dizuet: Jainkoaren erreinua haurtxoek bezala hartzen ez duena, ez da erreinu horretan sartuko*".

Eta besarkatu egiten zituen.

* * *

(35) Mc 10, 13-16

Haur ttipiena dela zeruko erreinua esaten digu hemen Jesusek. Zergatik? Besteak beste, ez dutelako zerua beren lanen puruz irabazten; beraiei dohainik eta hutsean ematen zaie. Eta Jesusen eskolan dabilenari ere berebat gertatzen zaio (neurri batean bederen).



Kanaango emakumearen fedea⁽³⁶⁾

Jesus handik irten eta Tiro eta Sidon-go mugetara joan zen: eta etxe batean sartuz, ez zuen nahi Bera han zegoenik inork ere jakiterik; ezin, ordea, ezkutuan egon. Izan ere, emakume bat —zeinen alaba deabru zikinak oinetan hartua zuen—, Jesus han zela jakin zueneko sartu zen etxean, eta Jesusen oinetan belaunikatu zen. Erlijioz jentila zen emakumea, arrazaz sirio-feniziarra. Eta eskatzen zion Jesusi bere alabagandik bota zezala deabrua.

Jesusek esan zion: *“Utzi lehenengo semeak ase daitezen, zeren ez baita egoki semeen ogia hartu eta txakurrei botatzea”*.

(36) Cf. Mc 7, 24-30

Eta hark erantzun zion esanez:

—*"Ederki, jauna, baina txakur kumeek ere jaten dituzte mahaipean semeen ogi-apurrak".*

Eta Jesusek erantzuten dio:

—*"Hitz horrengatik, zoaz, zeren atera baita deabrua zeure alabagandik".*

Eta ama bere etxera joan zenean, aurkitu zuen neskatilea ohe gainean etzanik, eta deabrua alde egina zela ohartu zen.

* * *


Norbere herria dela, jatorria edo hizkuntza dela eta, zenbat etsaitasun, gerra, istilu eta elkarrengandik urruntzeak eta gorrotoak ez dira sortzen gizonen artean! Guztien kaltetan, noski. Hala zen Jesusen garaian eta bai orain ere.

Ebanjelioak esaten digu Jesus Tiro eta Sidon-go mugetara joan zenean, etxe barruan zegoela Bera, eta Bera han zegoenik inork jakiterik ere ez zuela nahi. Gizonen arteko istilu eta borrokak ez sortzeagatik, noski.

Baina bazen han emakume bat bere alaba gaixorik zeukana, eta nahiz eta beste erlijio batekoa izan, gizonen esamesei kontu gutxi eginik eta Jesusek berberak ere, itxuraz mezipreziozko hitz batzuk esanarren, ez zen horrengatik kikildu. Fedez eskatu zion, bada,

Jesusi bere alabaren sendaketa, eta bai lortu ere.

Gizonen arteko zenbat istilu, etsaitasun eta gorroto ez lirateke gaindituko Ebanjelioak hemen erakusten digun portaera denok gordeko bagenu!



Pedroren aitortza⁽³⁷⁾

Eta atera ziren Jesus eta bere ikasleak Filiporen Zesareako etxegintzetara, eta bidean zihoala galdetzen zien bere ikasleei, esanez: *"Ni nor naizela diote gizonek?"*

Eta erantzun zioten, esanez: *"Joan Bataiatzailea, beste batzuek Elias, beste batzuek profetaren bat"*.

Orduan esan zien: *"Zuek, berriz, ni nor naizela diozue?"*

Pedrok, erantzunez, esan zion: *"Zu zara Kristo (Mesias)"*.

Eta abisu gogorra eman zien denei holarik ez esateko.

(37) Mc 8, 27ss; Mt 16, 13ss.

Eta gero hasi zen erakusten komeni zela gizonaren semeak asko pairatzea, eta zahar-
rrengandik, apaiz nagusiengandik eta idaz-
lariengandik asko sofritzea, eta hila izatea; eta
handik hiru egunetara berpiztea. Pedrok,
ordea,erantzunez, esan zion: "*Zu zara Mesias
(Kristo)*".

Eta mehatxu eginez, inori holakorik ez
esateko agindu zien.

Eta hasi zen gauza asko irakasten:
Gizonaren Semeak asko sofritu beharko
zuela, ezetsia izango zela eta gaitzetsia gizo-
nengandik, apaiz nagusi eta idazlariengan-
dik, eta hila; baina hiru egun geroago ber-
piztuko zela. Eta argiro hitz egiten zuen.

Eta jendea bere ikasleekin bildurik, esan
zien: "*Nire ondoren etorri nahi duenak uka beza
bere burua, har beza bere gurutzea, eta datorrela
nire ondoren. Bere bizia (=arima) salbatzea nahi-
ko lukeenak, galdu egingo du; eta nigatik eta
Ebanjelioagatik bere arima (bizia) galduko duenak,
hark salbatuko du. Zer probetxu aterako du gizo-
nak mundu guztia irabaziaz, bere arimaren kalte-
tan baldin bada?*"

* * *


Jendea Jesus nor zen ezin asmatuz zebi-
lanean, Pedro izan zen galdera honi zuzen

erantzun ziona: *"Zu zara Kristo, Jainko biziaren Semea"*.⁽³⁸⁾

Hauxe Pedrok eman zuen erantzuna, galdera honek eskatzen duen erantzun zuzen bakarra.

Zimentarri honen gainean eraikia dago Eliza, eta horregatik hau ez da kolokatuko sekulan.

(38) Mt 16, 16.



Haurrak eskatzen diote Jesusi, honek bedeinka ditzan⁽³⁹⁾

Aldi hartan aurkeztu zizkioten Jesusi ume batzuk, uki zitzan, baina ikasleek agiri-ka egiten zieten. Hori ikustean, Jesus haserre-tu, eta esan zien: *“Utzi haurrak niregana etortzen, eta ez galarazi, zeren Jainkoaren erreinua be-roien antzeko direnena baita. Promes ematen di-zuet, Jainkoaren erreinua haur batek bezala hartzen ez duena, ez dela hartan sartuko”*.

Eta besarkatu egiten zituen haurrak eta bedeinkatu, eskuak beren gain ezarriz.

Jesusek hemen esaten digunez, fededu-nek eta hurrek badute elkarren antza. Bai

(39) Mc 10, 13-16

bata eta bai bestea hurbiltzen dira elkarrekin mesfidantza fitsik gabe eta horretan asmatu egiten dute, ez dute huts egiten.

Jesusen esan honek egia handi bat dauka gordea bere baitan. Haurren antzeko direnak, alegia, errazago sinesten dutela, eta hori eginenez, ez dutela huts egiten.

Hortik ez dugu atera behar, noski, berdin dela edozer gauzari sineste ematea eta Jainkoak ez diola horri batere kasurik egiten. Beti ere fede-gauzetan serioski jokatu behar da.

Gauza bat da, noski, Jainkoagan egiazki geure fidantzia ipintzea, eta beste bat —zeharo beste bat—, Hartaz kontu gutxi eginik, edozein itxurari edo sasi jainkori jarraitzea edo kasu ematea.



Salbamena erraza ota da, gero?⁽⁴⁰⁾

Jesus bidera irteteen, norbait hurbildu zitzaien korrika, belaunikatu zen, eta honako galdera hau egin zion: —*"Maisu ona, zer egin behar dut nik betiko bizitza izan dezadan?"*

Jesusek erantzun zion: *"Zergatik deitzen nauzu ona? Ez dago onik, Jainkoa baizik. Ezagutzen dituzu Jainkoaren Aginduak: ez inor hil, ez ezkontza nahastu, ez ostu, ez testigantza faltsurik eman, ez inori iruzurrik egin, ohora itzazu zeure aita eta zeure ama".*

Hark erantzun zion:—*"Maisua: Hori guztia txikitandik egin dut nik."*

Jesusek, maitasunez begira gelditu, eta esan zion:

(40) Cf. Mc 10, 17-27.

—*"Gauza bat falta zaizu: Zoaz, duzun guttia sal, dirua behartsuei eman— horrela altxor bat izango duzu zeruan—, eta gero jarraitu niri"*.

Hitz hauek entzutean, betozkoa jarri eta damuturik joan zen, guztiz aberatsa baitzen...

* * *

Jesusek, ingurumarian begiratu, bere ikasleei esan zien:—*"Zaila egingo zaie benetan gero, aberatsei Jainkoaren erreinuan sartzea!"*

Harritu egin ziren ikasleak hitz hauek entzutean.

Eta Jesusek gaineratu zuen: —*"Semeok! Benetan zail egiten zaie Zeruko erreinuan sartzea beren uste ona diruan jarri dutenei! Errazago izango zaio gamelu bati jostorratz baten zulotik igarotzea, aberats bati Jainkoaren erreinuan sartzea baino"*.


Haiek guztiz izututa, haxe esan zioten:—*Orduan nor salba daiteke?*

Jesus begira gelditu, eta esan zien:—"Gizonarentzat ezina, da baina ez Jainkoarentzat. Jainkoak dena dezake".

* * *

Ez dugu, bada, betozkorik jarri behar zerura joatea zaila dela entzutean. Zaila da, nahi baduzu, baina Jauna eta Ama Birjina

lagun ditugula eta guk geure ahalegintxo
eginez, agian ez da hain zaila izango. Hala
biz.



Jesus epaitua eta hilarazia

Ostegun Santu gauean izan zen Jesus preso hartua Getsemaniko baratzean, eta Anas eta Kaifasen etxera eramana. Biharamun goizean, berriz, bildu zen Sanedrina —juduen batzar gorena, alegia—. Deitutako testigiek ez zuten tajusko salaketarik egin.

Orduan altxa zen Sanedrinen buru zen Kaifas, eta Jesusi galdetzen dio: *"Zu ote zara Kristo —hau da Mesias—, Jainko bedeinkatuaren semea?"*

Eta Jesusek erantzun:

—"Ni naiz; eta ikusiko duzue Gizonaren Semea Jainkoaren eskuinean, eta zeruko hodeiekin etortzen".⁽⁴¹⁾

(41) Mc 14, 61-62

Apaiz nagusiak esan zien bildutakoei:
—*Entzun duzue biraoa. Zertarako behar ditugu testiguak?*

Eta denek aho batez esan zuten heriotza merezi zuela.

Eta batzuek txu egin zioten, zaplastekokak ematen, etab.

* * *

Bazen oraindik beste auzitegi bat, Erromatar Inperioarena, alegia, eta hau ere pasabeharra zen. Pontzio Pilato zen beronen buru. Hau arrunki Zesarean bizi ohi zen, baina jai handietan Jerusalemenera etortzen zen. Eta Pazko garaiko festak zirenez, arrazoi horregatik, Pilato ere Jerusalemenean zen.

Ostirale Santu goizean, bada, eraman zuten Jesus Pilatorengana.

—Zer salaketa dakartzute gizon honen aurka?

—Errudun ez balitz, ez genizuke ekarriko.

—Zuek badituzue zeuen auzitegiak, eta beroietan garbi ezazue zeuen auzi hori.

—Baina guri ez zaigu zilegi heriotzako penarik ematea.

Pilato, dirudienez, sineste gabeko gizona zen. Berari zegokion Erromatar Inperioaren eskubideak Judean zaintzea. Sinestegabea,

baina baita beldurtia ere. Juduak ezin zituen ikusi. Baina ez zitzaion beste irteerarik gelditzen apaizek zekarten preso horren kasua epaitzea besterik.

Bere kargua ere gal zezakeen Pilatok Jesusen arazoa aztertu nahi izan ez balu. Eta esan beharrik ez dago: judu apaiz eta fariseoek biraolaritzat jotzen zuten Jesus bere burua Jainko egiten zuelako. Eta egia zen Jesus Jainko zela, baina nork sartu hori buruan orduko jendeari? Juduek sinesten zuten Jainkoa zeruan dela, bakarra eta ikusi ezina dela, baina hortik gainerakoak?

Pilatok gogoz askatuko zuen Jesus, baina, alde batetik, koldarra zen, kobardea, eta, bestetik, Jesusen arazoagatik bost axola zitzaion berari.

Jesus askatzea edo libre uztea ere bururatu zitzaion Pilatori, zeren Pilatok garbi ikusten baitzuen inbidiz edo, ari zirela apaizak Jesusen kontra.

—Hau askatzen baduzu, Zesaren kontra zoaz, eta zeuk atera kontuak; judutar apaizek hori bota zioten aurpegira Pilatori.

Arazoa ez zen erreza Pilatorentzat.

* * *

Ustekabean azaldu zen gizatalde handia plazan Barrabas libre uzteko deiadarka. Izan

ere, ohitura zen urtero preso bat askatzea: jendeak eskatzen zuena, alegia. Pilatori iruditu zitzaion hor zuela bide bat ezin hobea Jesus askatzeko. Joan zen balkoira eta plazan zegoen herriari galdetu zion:

—Zein nahi duzue askatzea: Jesus ala Barrábas?

—Guk askatzea nahi duguna Barrabas da.

—Eta bestearekin zer egingo dut orduan?

—Gurutziltzatu.

Hauxe izan zen erantzuna.

Hala erabaki zen, bada, Jesusi gurutzeko heriotzaren pena ematea, bere izen ona betiko gal zezan. Eta han zeuden apaiz, saduzeo, fariseo eta abarrek hala egin zuten.

Pilatori ez zitzaion gustatu, eta bere desadostasuna nolabait erakusteko, azpil bat eta ura ekarrarazi eta jende guztiaren aurrean eskuak garbitu, eta esan zuen: "*Nik ez dut zerikusirik gizon honen heriotzean*"⁽⁴²⁾. Baina ez zioten Jaramonik egin.

Eta hala, bere etsaien eskuetan utzi zuen Jesus Pilatok.

Eta Jesus xehatu ondoren, Kalbario mendira eraman eta han gurutziltzatu ondoren, arratsaldeko hiruretan hil zen.

(42) Mt. 27,24



Erromatar soldaduen buru bezala han zegoenak esan zuen: *"Egiazki Jainkoaren Semea zen hau"*⁽⁴³⁾.

Jesusi jarraituz Galileatik etorritako emakume asko ere han ziren⁽⁴⁴⁾.

Juduek ordea, biharamunean jai handia zelako —Pazko eguna, alegia—, Pilatorengana joan eta eskatu zioten Jesusen eta berarekin batera hilak izan zirenen gorpuak lehenbailehen gurutzetatik ken eta lurperatzeko⁽⁴⁵⁾.

Pazko festa hastera zihoan eta halako egun handian gurutzean josiak han egon ez zitezen, juduek eskatu zioten Pilatori gurutziltzatuei bernak hausi eta gurutzetatik kentzeko. Eta hala egin zen. Jesusengana hurbildu zirenean, ordea, hila zela ikusirik, ez zioten bernarik hausi, baina soldadu haietako batek lantzaz saihetsa zulatu eta handik odola eta ura irten ziren. Ikusi zuenak hala segurtatzen du.⁽⁴⁶⁾

Emakume asko Jesusi jarraituz Galileatik etorriak ere han ziren⁽⁴⁷⁾. Jesusen Ama ere gurutze ondoan izan zen San Joan Apostoluarekin batera⁽⁴⁸⁾.

(43) Mt. 27,54

(44) Mt 27,55

(45) Jo 19, 31.

(46) Jo 19, 34.

(47) Mc 15, 40-41.

(48) Jo 19, 25-27

Pilatorengana etorri ziren baita Arimateako Jose eta Nikodemo ere, Jesusen jarraitzaile zirenak, nahiz eta juduen beldurrez ez ziren jarraitzaile bezala agertzen. Eskatu zioten Jesusen gorpua, eta Pilatok baita eman ere. Bi jaun horiek, bada, Jesusen gorpua gurutzetik eratxi eta ukendu-mixtura batekin gorpua gantzutu ondoren, Arimateako Josek beretzat eginik zuen hilobian jarria izan zen Jesusen gorpua. Koba moduko batean zegoen hilobia. Eta kobaren sarrera harri handi batekin itxi zuten.


Maria Magdalena eta beste emakume batzuk pixka bat urrunetik dena ikusten egon ziren.

Jesusek bada, gurutzetik zintzilik zela, "*Egarri naiz*" esan zuen. Eta gurutze-ondoan zen soldadu batek kainabera baten puntan ipini esponja bat, ozpinez betea, eta hori eman zion edatera. Hori hartu eta, Jesusek esan zuen: "*Dena konplitu da*". Eta burua makurtuz hil egin zen.⁽⁴⁹⁾

Jesus gurutziltzatua izan zen lekutik gertu, bazen baratze bat eta bai koba bat ere, eta koba barruan hilobi bat, Arimateako Josek beretzat hautatua zuena. Hemen, bada, gan-

(49) Jo 19, 34

tzutua izan ondoren, eta gorpua zintaz lotu ondoren, jarri zuten Jesus. Kobaren sarrera haitz handi batez itxia izan zen.



Jesusen piztuera eta zerura igotzea

Jesus ostiral arratsaldean hil zen, eta Jesusen lagunak ez ziren lo egon. Bazekiten ez zirela ordu asko falta pazko-jai handirako (ostiraleko eguzkia ezkutatzear hasten baitzen pazko egun hori).

Arimateako Jose, bada, Jesusen ikasle izanik —baina ikasle ezkutua, juduen beldurrez⁽⁵⁰⁾— joan zen Pilatorengana eta Jesusen gorpua eskatu zion. Harritu zen Pilatu Jesus hain aguro hiltzeaz, baina ziurtatzeko, Kalbario mendian egon ziren soldaduen buruari galdetu zion, eta hark baietz, Jesus hil zela segurtatu zuen.

* * *

(50) Jo 19,38

Jesus hil ondoren lurperatu zuten Kobazu lora jendea hurbiltzen hasi zen. Nikodemok— Jesusen laguna izana hau ere⁽⁵¹⁾, mirra eta aloekin egindako mistura bat ekarri zuen eta horrekin Jesusen gorpua gantzutu, eta hilobian ipini zuten. Eta gero harri handi batekin hilobia zegoen koba itxi egin zuten. Jesusen hilobi hau, Jesus gurutziltzatua izan zen lekutik oso gertu zegoen.

* * *

Jesusen lagunak ziren zenbait emakume, pixka bat urrunetik begira zeuden. Eta gauzok presaka egin zirelako edo, ez ziren gustura gelditu. Eta larunbata pasa ondoren, igande goizean, oso goizik, Jesusen hilobira etorri ziren, Jaunaren gorpua arretaz gantzutzeko asmoz. Baina kezka handi batekin zetozen: *“Zeinek kenduko digu, orde, koba-sarreran dagoen harria?”* Badihoaz, bada, kezka horrekin, eta hara non ikusten duten harkaitz hura kendurik dagoela.⁽⁵²⁾

Hori ikusirik, Maria Magdalena korrika dihoa herrira (Jerusalenera, alegia), Pedro eta Joani esatera ostu egin dutela Jesusen gorpua, eta ez dakitela non jarri duten.

(51) Jo 19, 38

(52) Jo 20, 1

Pedro eta Joan, hori entzunik, hilobia ikustera irten ziren. Biak korrika, baina Joan heldu zen lehenago—gazteagoa zelako, noski—, eta geroxeago heldu zen baita Pedro ere⁽⁵³⁾. Han zeuden Jesusen mihiseak, eta bai haren aurpegi-gaineko hil-ohiala ere.

Hil-oihalak han zeuden, bai, baina hildakoa—Jesus— ez zen han. Zer pasatu zen, bada? Jesusen etsaiek ostu egin zutela gorpua? Ez, hauek eduki balute laster aterako zuten, Jesusen piztuera gezurtatzeko.

Gainera, Jesus berpiztu hori hasi zen, berak nahi zienei agertzen, hots, Maria Magdalenari⁽⁵⁴⁾, Bera Aitarengana zihoalako berria ematera. Handik zortzi egunera, ordea, Tomas bakarrik falta zela, Apostoluei agertzen zaie⁽⁵⁵⁾. Beste Apostoluek jakinarazi zioten hori Tomasi, eta honek sinestu nahi ez. Astebete geroago, agertzen zaie Jesus barriro, Tomas ere barnean zela, eta berarengana joanez eta beronek sinesteko ipini zuen baldintza kontutatu hartuz⁽⁵⁶⁾, Jesusek aukera ematen dio esku-aurretako zauriak ukitzeko. Orduan esan zuen Tomasek bere otoitz ederra: "*Ene Jauna eta ene Jainkoa!*"⁽⁵⁷⁾".

(53) Jo 20, 3-4

(54) Jo 20, 14-18

(55) Jo 20, 19

(56) Jo 20, 26-27

(57) Jo 20, 26-27

Bete ote zuen Tomasek berberak eskatutako baldintza? Ez dakigu. Beharbada ez zen ausartu, baina sinestun gelditu zen.

* * *

San Lukasek bere ebanjelioan dakarkigu beste gertaera bat, Pazko igande arratsaldean bertan gertatua⁽⁵⁸⁾. Pazko igandean bertan, arratsaldez, bi kristau edo kristaugai zihoazen Jerusalemdik Emausera. Biotako batek Kleofas zuen izena. Triste zihoazen egun haietako gertaerak komentatzen, hots, Jesusen heriotza etab. Jesus berpiztu zenik eta holakorik ez zekiten batere, itxuren arabera, kristauak edo dristaugaiak ziren, baina igandean gertatutako gauzekin, haien fedea loka zebilen. Dirudienez, beste kristauen biltzarretik ere aldendurik zebiltzan. Baina hara non bidean zihoazela, jaun ezezagun bat biltzen zaien bide-lagun bezala, eta galdetzen die: *“Zer hizketa dakartzazue elkarrekin, eta zergatik zaudete hain triste?”* Eta haiek (edo haietako batek, Kleofas izenekoak) erantzuten dio: *“Zer? Zu bakarrik ahal zara arrotz edo kanpotar Jerusalemenean, hemen egun hauetan gertatu*

(58) Ikus Lc 24, 13ss.

dena ez jakiteko?" Eta ematen diote Jesusen berri eta azkenik haren gurutzeko hilketaren albistea. Eta Jesusek haiei erantzun: "*—Zuek bai zaretela motel eta ergelak Profetek adierazitako gauzak sinesteko! Ez ote zen bada egoki Kristok horiek guztiak jasaitea eta horrela zeruan sartzea?*"⁽⁵⁹⁾.

Azkenean heldu ziren Emausera, hots, bi bidazti haiek zihoazen herrira, eta Jesusek aurrera joateko planta egin zuen, baina bideko bi lagunek han gelditzeko eskatu zioten, berandu ere bazela eta. Eta baita Jesusek onartu ere gonbidapena, eta beroiekin afaltzera gelditu zen. Afaltzean, berriz, Jesusek ogia hartu, bedeinkatu, puskatu eta eskaini egin zien. Eta hain zuzen, orduantxe zabaldu zitzaizkien begiak eta ezagutu zuten Jesus zela; baina Jesus haien begietatik ostendu egin zen.

Eta ordu hartan bertan altxatu eta Jerusalemenera itzuli ziren eta kristauen batzarra bildurik aurkitu zuten. Han zeuden bildurik hamaika Apostoluak eta beste, esanez: "*Egiazki biztu da Jauna eta Simoni agertu zaio*"⁽⁶⁰⁾. Besteak, berriz, bidean gertatutakoak kontatzen zituzten eta nola ogia zatitzean ezagutu zuen Jesus.

(59) Lc 24, 26

(60) Lc 24, 34

Eta hizketan ari zirela, jartzen da Jesus beren erdian, eta esaten die: "*Bakea zuei, Ni naiz, ez izan beldurrik. Ikus nire eskuak eta oinak, Neroni naiz*".

Eta gero galdetu zien: "*Ba duzue zerbait jatekorik?*". Eta eskaini zioten arrain-zati bat errea, eta ez tia. Eta denen aurrean jan ondoren, gelditu zena eman zien⁽⁶¹⁾.

* * *

Tiberiades-ko itsasoan Apostoluak arrainetan zebiltzala, berriz ere azaldu zitzairen Jesus, baina ezezaguna balitz bezala⁽⁶²⁾. Gainera, ezezagun honek eginik zuen itsas-ertzean, eta hartutako arrainetatik batzuek han sutan erre eta gosari bezala eskaini zizkien apostoluei. Eta pasadizo honetan baieztu zuen Jesusek Pedro Eliza osoaren Aita Saindu bezala⁽⁶³⁾.

Eta gero, azkenik, Jesusek San Pedrori hiru aldiz bere maitasunaren galdera egin ondoren, eta Pedrok hiru aldiz baietz erantzun ondoren, Pedro gelditzen da Elizan lehen Aita Saindu bezala jarria.

(61) Lc 24, 43

(62) Jo 21

(63) Ikus Jo 21, 9-14

Pedrok egiten dio Kristori galdera San Juani buruz ere, baina Jesusek horretaz ez zion erantzun garbirik eman nahi izan⁽⁶⁴⁾.

*Fr. Luis Villasante Kortabitarte
Arantzazu, 1998ko maiatzean.*

(64) Ikus Jo 21, 20-23